



## Zornotzako Zelaieta Zentroko frontoirako protokoloa

Frontoian erabiliko den protokoloa azaldu aurretik, esan beharra dago denok zentsuz jokatu behar dugula egoera honen aurrean. Hori dela eta, sintoma posibleren bat izan ezkeru edo kutsatutako pertsona batekin kontaktu zuzena izan ezkeru zuen osasun zentroarekin harremanetan jarri.

Jarraian Zelaieta Zentroko frontoira hurbildu behar diren pertsonentzako protokoloa ageri da:



Musukoa uneoro ipinita eramatea nahitaezkoa izango da. Pilotariak soilik kendu ahal izango dute partidurako

## SARRERA

Frontoiko ohiko sarreraren alboan dagoen atetik sartuko gara frontoira. Eraikin berriaren alboan dagoen ate grisetik hain zuzen ere. Behin atea zeharkatuta eskuak eskumako aldean dauden gel hidroalkolikoekin garbitu beharko dira. Ondoren alboan dauden bi alfonbretatik pasatuko ditugu hankak adierazitako ordenan. Behin prozesu hori Beteta eskailerak baxatu ahal izango dira kantzara joateko eta bertan kantzara sartzeko beste behin ere hankak garbituko ditugu kantxa alboan dauden alfonbretatik adierazitako ordenan.



## ALDAGELA

Aldagelak ez dira erabilgarri egongo. Etxetik partidurako prest jantzita etortzea gomendatzen da. Partida jokatu aurretiko itxaronaldia harmailetan egin beharko da bata bestearen alboan bi aulkiren hutsunea errespetatuz.

## **MATERIALA**

Partiduetarako erabiliko den material guztia partiduen aurretik eta bukatu ostean desinfektatuko dira. Kontra-kantxa inguruan mahai bat izango da. Bertan, epaileek zesta utziko dute eta bertako materiala pilotariak soilik ukitu ahal izango dute. Adibidez, pilota aldaketa egin nahi ez gero, pilotaria mahaira joan eta nahi duen pilota hartuko du.

## **IRTEERA**

Irteera sartutako toki beretik egingo da, sartzeko erabili diren neurriak errespetatuz. Frontoian bertan izango den arduraduna sartu eta irteera puntuan sor daitezkeen pilaketak saihesten arduratuko da.

Gogoratu momentu guztian metro biko segurtasun distantzia mantentzea eta musukoa behar bezala ipinita izatea uneoro.

Beste barik, espero dugu egoera hobera joatea eta laster garai hobeagoak etortzea. Ordura arte saiatu gaitzen denon artean elkar zaintzen neurri desberdinak erabiliz.